

OHIKO OSOKO BILKURA 02/21

UDALAK 2021eko OTSAILAREN 23an EGINDAKO OHIZKO OSOKO BILKURAREN AKTA

ALKATEA:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

ALKATEORDEAK:

Maria del Coro Echeverria Tolosa.

Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza.

Oier Agirresarobe Lizaso.

ZINEGOTZIAK:

Martin Aldaya Olasagasti.

Isabel Sanchez Perez.

Itsaso Lekuona Legorburu

Estibaliz Sara Agirre Agirre.

Alex Erdozia Igoa.

Maria Francisca Ibarguren Echeverria.

Ane Ibarburu Lizeaga.

Andoni Amonarraiz Gómez.

Felipe Etxeberria Agirretxe.

Blanca Alberro Aranzasti.

Mikel Gurutzeaga Zubillaga.

Jaione Aristregui Cao.

Lurdes López Gorrotxategi.

Ricardo Crespo Rubio.

Jesus Mari Lopez Sanchez.

2021eko otsailaren 23an ohizko osoko bilera egin da telematikoki, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

IDAZKARIA:

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa .

KONTU-HARTZAILEORDEA:

Aitor Sarasola Salaberria.

Alkatea: Kaixo, hasi egingo gara plenoarekin, gai ordenari segituz.

1.- 2021-01-25EKO AKTA ONARTZEA. - Alkatea: Lehenengo, urtarrilaren 25eko plenoko akta daukagu onartzeko. Arazorik aktarekin? Aho-batez onartutzat emango dugu, ezer ez badago.

2.- 2021EKO OTSAILAN EMANDAKO DEKRETUAK 47-213 ZBK. DUNAK. BERRI EMATEA. - Bigarrena, hilabetero bezala, otsailan eman ditugun dekretuen berri ematea. 207. dekretutik 213ra. Zerrenda pasa zaizue. Ez dakit honen inguruan zerbait aipatu nahi duzuen. Ez. Berri ematea da, beraz, aurrera.

3.- INMACULADA IKASTETXEAK EGINDAKO ERAIKUNTZA INSTALAZIO ETA OBREN GAINeko ZERGAREN HOBARI-ESKAERA EGINDAKO ERAIKUNTZA INSTALAZIO ETA OBREN GAINeko ZERGAREN HOBARI-ESKAERA. - **Alkatea:** Hirugarren gaia Inmaculada ikastetxeak egin duen eskaera bat da. Bertan egin duten obra bat dela eta, eskatzen duten hobari bati buruzkoa. Isak azalduko digu.

Isa Sanchez: Kaixo, arratsalde on.

Inmaculada ikastetxean obra bat egin behar dute teiltua konpontzeko. Obra honi aplikatu behar zaio eraikuntza instalazio eta obren gaineko zerga. Eskatu dute zerga hau hobaritzea, interes berezikoa edo Udalaren onurakoa izateagatik. Proposatzen dugu onartzea beren eskaera eta %90eko hobaria ematea.

Bozkatu egin behar da.

Alkatea: Bai, hori da. Beste egoera batzuetan ere egin izan dugu, interes publikotzat jotzen den erakundeetan beraien instalakuntzetan eta obra bat egiten duten kasuan, kasu honetan bezala %90eko hobaria ematea.

Honen inguruan zerba it komentatzeko? Ez badago ezer, bozkatzera pasako gara. Inmaculada ikastetxeak beraien obraren gaineko zerga hobaritzeko eskaeraren aldeko botoak? Aho-batez onartzen da, beraz.

“Inmaculada Ikastetxeak Sandiusterrri 4 helbideko INMACULADA IKASTETXEko teiltua birgaitzeko obra interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta izateko eskatzen du eta horrela dagozkion Eraikuntza, Instalazio eta Obren inguruko Zergaren hobaria emakida ere eskatzen du.

Obra egiteko baimena eman zaio 2020:1557 dekretuaren bitartez, dekretu horretan azaltzen diren baldintza batzuk aldutuz gain eskatzen dute

“que se valore una posible bonificación de tasas-impuestos municipales por tratarse de una obra de interés social para el municipio de Hernani”

Errenta teknikariak adierazi duen bezala indarrean dagoen araudia honakoa da:

► Ordenantzaren 5.artikuluaren 4.4 apartatuak horrelakoa ezartzen du:

*Eraikuntzek, instalazioek edo obrek **100eko 95era arteko** hobaria izango dute, interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrek onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.*

**Eusko Jaurlaritzak Herri ikastetxeetan egin beharreko obrak Interes berezikoak izendatzen dira, betiere ikastetxe horien mantentze-lanak Eusko Jaurlaritzarena bada eta lizentzia Eusko Jaurlaritzaren izenean badago ere %95eko hobaria izango dute obra horiek.*

► Zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko Tasaren Ordenantzak ondokoa ezartzen du:

2. Tasaren 100eko 90eko hobaria izango dute:

4.-Interes bereziko obrek edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Aho batez erabakitzen da:

- Udal Batzarri aho batez proposatzea onartzea eskatutako **interes bereziko edo udal onurako izendapena**, eta horren ondorioz onartzea eskatutako eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren %90eko hobariaren aplikazioa zergan eta tasan.”

4.- COVID-19 GAITZAREN OSASUN KRISIAREN ONDORIOZ TASETAN ONARTZEKO HOBARIAK, 2021KO HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUAREN TASAN : EREMU ERRESIDENTZIAL ZEIN INDUSTRIALEAN. - Alkatea: Hurrengo puntura salto egingo dugu. Hau ere Isak azalduko digu. Covid-19aren bueltan tasen inguruan hobariak onartzeko proposamen bat da hona dakarkiguna.

Isa Sanchez: Puntu honek bi proposamen dauzka Antolakuntza Batzordean otsailaren 11n azaldu genuen bezala.

Lehena, iaz bezala aurten ere proposatzen dugu covid-19agatik, tasen ohiko hobariez aparte, aukera izatea, behar baldin bada, beste hobari batzuk sortzea kaltetutako kolektiboek aplikatzeko. Tasa bakoitzean zehaztuko da hobarien aplikazioa eta bere baldintzak.

Bigarrena, denok dakigun bezala urtarilean covid-19agatik Hernani eremu gorrian egon zen eta ostalaritza itxita egon zen. Proposatzen dugu 2020an egin genuen bezala merkataritza eta ostalaritzarekin, urtarilean itxita izandako egunetan hondakinen tasa %100 hobaritzea ostalaritzari. Hobari hau bi eremutan aplikatuko da: erresidentzialean eta industrialean.

Alkatea: Honen inguruan zerbait komentatzeko? Bestela bozketara pasako gara. Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz tasetan onartzeko hobarien aldeko botoak? Hau ere aho-batez onartu da.

“Errenta teknikariak adierazi duen bezala indarrean dagoen araudiaren arabera , 2020an bezala 2021 urtean Hernaniko Udalak ahal ditu tasen hobariak onartu Hobari horiek jasotzeko arrazoiak COVID-19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar dira, eta krisi horrek bereziki eragindako kolektiboek aplikatuta.

2020/12/03 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da *11/2020 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 1ekoa, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintze ko zerga arloko presako neurriei buruzkoa.*

11/2020 Foru Dekretu-Arauan, ondokoa ezartzen da:

18. artikulua. Tasen hobariak.

2021ean tokiko entitateek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Entitateei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak II. tituluaren III. kapituluaren 3. sekzioan jasotakoari jarraituz ezarrita dauden udal tasen zenbatekoaren gainean.

Hobari horiek jasotzeko arrazoiak COVID-19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar dira, eta krisi horrek bereziki eragindako kolektiboek aplikatu ahal izango zaie.

Artikulu honetan aipatutako hobarien ondorioek 2020ko urtarrilaren 1era arteko atze ra eragina izan dezakete.

Aurten urtarrilean berriro ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzu batzuen (elkartea gastronomikoak, adibidez) erabateko itxiera ezarri da, osasun prebentzio-neurriak hartzen ari baitira alarma egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-coV-2AK eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Horrela, eta kontuan hartuta gaur egun ez dakigula itxita jardura hauek zenbat egunetan egongo diren eta ikusita COVID 19^{ak}ko gaitza osasun krisia jarraitzen dela, hobariaren emakidak onartuz gero tasaren epealdi bakoitzean onartu ordez, 2020n egin den bezala, 2021ko ordenantzetan aurreikustea hobaria emango direla Espainiako Estatuak edota Eusko Jaurlaritzak aginduko dituzten 2021. urtean zehar itxiera guztietan.

Aho batez erabakitzen da:

Lehena.- Administrazio Zerbitzuak eskeini edo Udal Jarduerak Burutzeagatiko tasak arautzen duen ordenantzaren ondoko artikulua, 2021eko urtarrilaren 1etik ondorioekin

7. bis artikulua

- 1. Aparteko hobariak onartzen dira ezarritako udal-tasen zenbatekoaren gainean. Hobari horiek Covid-19 gaitzaren osasun-krisiak eragindakoak dira, eta krisi horrek bereziki kaltetutako kolektiboek aplikatu ahal izango zaizkie. Tasa bakoitzaren eranskinean zehaztuko da hobarien aplikazioak eta bere baldintzak.*
- 2. Artikulu honetan aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izan ahalko dute.*

Bigarrena.- Administrazio Zerbitzuak eskeini edo Udal Jarduerak Burutzeagatiko tasak arautzen duen ordenantzaren 8. Eranskina HONDAKINEN BILKETA izeneko eranskina aldatzeara, 2020ko urtarrilaren 1etik ondorioekin:

Ordenantzaren tasen aplikatzeko arau berria onartzen da:

1. Eremu erresidentzialan tarifa aplikatzeko araua:

9. Tasaren hobaria:

Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz DERRIGOR beraien lokalak itxi izan behar duten jarduerentzat agintari eskudunek beharitutako itxiera-egunen arabera hobari proportzionala aplikatuko da, epealdi honetan dagozkion erroldetan.

%hobaria= (erroldaren epealdiko tarifa itxiera egunak)/ erroldaren epealdiko egunak*

Hobaria aplikatzeko baldintzak:

- 1. IAEn alta emanda egotea hobaritutako epealdian.*
- 2. Jardueraren titularra tasen ordainketa betebeharra izatea lokalaren jabea izan ezean.*
- 3. Udalarekiko zorrik ez izatea*

Hobaria eskatzeko epea:

2021eko urte osoa izango da. Hobaria ematen denean, tasaren ordainagiriak ordaindu badira, hobariaren emakidaren batera ordaindutako diru kopurua ere itzuliko da. Ahal den neurrian, hobaria ofizioz aplikatuko da IAEko errolda dauden datuak kontuan hartuta.

2. Eremu industrialean

6. Tasaren hobaria:

Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz DERRIGOR beraien lokalak itxi izan behar duten jarduerentzat agintari eskudunek behartutako itxiera-egunen araberako hobari proportzionala aplikatuko da, epealdi honetan dagozkion erroldetan.

%hobaria= (erroldaren epealdiko tarifa itxiera egunak)/ erroldaren epealdiko egunak*

Hobaria aplikatzeko baldintzak:

4. *IAEn alta emanda egotea hobaritutako epealdian.*
5. *Jardueraren titularra tasen ordainketa betebeharra izatea lokalaren jabea izan ezean.*
6. *Udalarekiko zorrik ez izatea*

Hobaria eskatzeko epea:

2021eko urte osoa izango da. Hobaria ematen denean, tasaren ordainagiriak ordaindu badira, hobariaren emakidaren batera ordaindutako diru kopurua ere itzuliko da. Ahal den neurrian, hobaria ofizioz aplikatuko da IAEko errolda dauden datuak kontuan hartuta.

Hirugarrena.- Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharra egin ahal izateko.

Laugarrena.- Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauzko epean inolako erreklamazio edo oharrik egiten ez bada behin betiko bihurtuko da.

Bostgarrena.- Ogasun delegatuari ahalmena ematea erabakiaren testua eta tributuak arautzen dituzten ordenantzak baterabiltzeko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz."

5.- PNV-EAJ TALDEAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, OSOKO BILKURAREN BATZORDEETAN TALDE POLITIKO HORREN KIDEAK ALDATZEKO. - Alkatea: Bosgarren puntua berri-emate bat da. Kasu honetan EAJ-PNV taldeak aldaketa batzuk proposatu ditu batzordeko bere kideei dagokionez. Andoni, zuk azaldu nahi duzu zerbait?

Andoni Amonarraiz: Aldaketa besterik ez da, Herritarrentzako eta Antolaketarako batzordeetako ordezkarietako baten aldaketa. Mikel etorriko da Joxean Cuesta eta Maria Otaegiren orde.

Alkatea: Ados. Esan bezala, berri-emate bat da eta jasota gelditzen da. Hemendik aurrera ordezkari aldaketa horrekin jarraituko dugu.

6.- 1653 DEKRETUAREN BERRI EMATEA. - Alkatea: Hurrengo puntura pasako gara, seigarren puntura.

Hau ere berri-emate bat da. 2020ko 1653 dekretuaren berri-emate bat da. Gobernu Taldeko Estitxu Agirre zinegotziaren Gizarte Segurantzaren emandako baja eta alta bat da. Badakizue gure aurrekontu arauen arabera, arauak dio, %100eko kontratua baldin badaukagu Udaletik kanpo ezin dela osagarritu hemen. Bai Udalean eta Udaletik kanpo lan egiten dugunean, guztira, gehienez ere, %100eko jardunaldia eduki dezakegula. Kasu honetan, 2020ko azaroaren 22tik aurrera Estitxuk Udaletik kanpo %100eko jardunaldiko lanpostua izan du. Beraz, azaroaren 22an baja eman zitzaion Hernaniko Udalean eta urtarrilaren 1ean kanpoko lan hori bukatu zenez, 2021eko urtarrilaren 1ean berriz ere alta eman zitzaion aurrez bezala, %20ko jardunarekin. Hor daude datuak, zein diren soldata gordina eta, esan bezala, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu direnak.

7.- HERNANIKO UDAL MUGAPEAN BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA. - **Alkatea:** Esan bezala berri-emate bat zen eta, orain, zazpigarren gaira pasako gara. Hiri garraio zerbitzuaren ingurukoa da, kontratazioen ingurukoa. Korok azalduko digu.

Koro Etxeberria: Arratsalde on. Hiri bus zerbitzuaren kontratua berri behar da. Hamar urteren buruan iritsi da eta beste hamar urterako kontratua proposatzen da.

Zerbitzua beharrezkoa ikusten da, bereziki, mugikortasun eta irisgarritasun arazoak dituzten herritarrentzat. Hernaniko auzoak ezagutzen dituzue, oso sakabanatuta daude, gero eta adineko jende gehiago dago eta kontutan hartu behar da hauek dituzten zailtasunak erdigunera edo zerbitzuetara iristeko. Esate baterako, anbulatoriora, komertzioetara, bankuetara, etab. Baina esan behar da, baita ere, ez diola soilik adineko jendeari erantzuten; goizetako lineak ere asko erabiltzen dituzte ikastetxeetara joaten diren haur eta nerabeek. Beraz, bi profil hauei erantzuten die: adinekoei eta haur eta nerabeei.

Udalak gai hau lantzeko teknikaririk ez duenez, Udalak Gipuzkoako Garraio Agintaritzarekin adostu zuen gomendio bat egitea eta Indartek enpresari eskatu zitzaion azterketa eta lanketa egiteko.

Joan den urtean hasi ginen lanketa honekin. Egia da gero etorri zela pandemia ditxosozko hau eta berriro irailean ekin geniola berriz ere lanketa honi.

Dena den, eta lehenengo partean diagnostikoa eta azterketa egin zenean, joan den urteko martxoan-edo horren ondorioak azaldu zitzaizkien alderdi politiko guztiei, baita auzo elkarteei eta Koxka elkarteari ere.

Eskertu nahi dut hemendik Indartek-ek egin duen lana. Oso lan txukuna eta ona egin duela esango nuke. Eta aprobetxatu nahi dut, baita ere, esateko udaletxean lan hau egiteko osatu den lantaldeak ere oso lan ona egin duela, inplikazio handia izan duela eta nik behintzat eskertu behar diet, bestela ezingo baikenuke plan hau aurrera atera.

Hori esanda, pleguetako ezaugarri nagusiak zeintzuk dira. Aipatu dut hasieran hamar urtetarako zerbitzu kontratua proposatzen dela. Lehen kontzesioa zen. Orain zerbitzu kontratazio bat izango da. Ibilgailua mikrobus bat izango da eta mikrobus edo ibilgailu horrek berria izan beharko du edo gehienez urtebete izango du. Berria izango balitz, beste urtebeteko epea izango du esleituak berri hori inkorporatzeko edo ekartzeko. Lizitazioko aurrekontua 149.110€-koa da, gehi %10eko BEZa. Langileak subrogatu egingo dira eta garraioko lan-hitzarmena aplikatuko zaie. Ibilgailuari dagokionez aldaketatxo batzuk egongo dira: gutxieneko 40 bidaiari izango du lehengo ibilgailuarekin baino

kapazitate handiagoa izango du oraingoak; neurri jakin batzuk eskatzen dira nahi bada hainbat lekutatik pasa, esate baterako, Elizatxoko tunela edo-eta Etxeberriko ibilbide bihurgunetsu eta estu...; eta irisgarritasun legea bete beharko du, zentzu horretan aipatzen da bi gurpildun aulki sartzeko espazioa izan beharko duela, arranpak...; ibilbideak eta ordutegia bermatzeko teknologia beharko du, kontutan hartu beharko da hamar ordu inguruz funtzionatuko duela eta pleguetan zehazten diren maldak ere kontutan hartu beharko dira; eta bestetik, EAEko jasagarritasun eta energiari buruzko legea aplikatuko da eta ordezeko erregaiak kontsumitzen dituen ibilgailua izan behar du; eta hor ere izan beharko du elektriko purua edo hibrido elektriko entxufagarria, edo (...) edo biofuela, edo... Bueno, legeak berak zehazten ditu zeintzuk izan daitezkeen.

Pleguetan jasotzen da baita ere instalazioak beharko dituela esleituak, alegia, beharko duela bulego bat, aldagela batzuk eta ibilgailua jasotzeko garajea. Eta bestetik, jasotzen dira bertan zerbitzua emateko kontutan hartuko direla ingurumen irizpideak. Horren inguruko plan bat eta ziurtagiri bat aurkeztu beharko du eta, nola ez, baita ere hizkuntz irizpideak jasotzen dira.

Ibilbideari dagokionez, funtsezko aldaketa linea berri baten sorreran dago. Ordutegiak hobeto antolatzeko bidaiak, eta lehen iristen ez zen hainbat lekutara iritsi ahal izateko.

Guztira lau linea egongo dira. Bata eskoletako linea deitzen dioguna, eta linea honetan ere aldaketa bat izango da: lehen bost ibilbide zeuden eta orain lau izango dira, bi oso antzekoak zirelako eta bien artean bat egin dugu edo bietako bat kendu. Horrek bermatuko digu Zikuñagara iritsi ahal izatea eta pentsatzen dugu lehen ere horietako ibilbide batean oso jende gutxi ibiltzen zenez, orain kapazitate handiagoa izango duenez autobusak, bermatuta dago baita ere bidaiari horien aukera. Gainera, horrekin iruditzen zaigu lasaiago ibiliko dela denboraz eta zerbitzu hobea emango dugula.

Egungo beste ibilbideetan esan behar da lehen bakarra baldin bazegoen ere herri osoa zeharkatzen zuena, orain bi ibilbidetan banatuko da: bata izango da Hiribus 1 deitu dioguna, izango dena Elkanotik, Florida, Etxeberri eta Sagastialde zonaldea hartuko dituen; eta bestea, Hiribus 2 deitu dioguna, Elkano, Karabel, Zikuñaga, Elizatxo, Portu eta beste zonalde hori bilduko dituen.

Hemen esan behar dut ibilbideetako antolaketa honetan eta aldaketa hauetan PSOEK egindako ekarpen dezente onartu eta jaso direla, eta nik hemendik eskerrak PSOERI, uste baitut beti ere zerbitzua hobetzeko baldin bada ongi etorriak direla. Baina, esan behar diot, baita ere Ricardori, onartutako zenbaitekin batera berak proposatzen zuen, baita ere, Ereñozu eta poligono industrialetako beste linea bat sortzea. Horiek ezeztatu egin ditugu, Ereñozuko auzo udalak Gipuzkoako Garraio eta Lurralde Agintaritzarekin adostu duelako zerbitzua. Beraz, hori bermatuta dago eta beraiek adostu dute. Bestetik, poligonoetako zerbitzua ere ez dugu ikusten, garai batean ematen zen baina bertan behera gelditu zen bidaiari faltagatik, ez zelako erabiltzen. Eta ez da erabiltzen, besteak beste, enpresen ordutegiak desberdinak direlako, erreleboetan lan egiten delako, jendeak geroz eta herri desberdin gehiagotatik datorrelako jendea, konplikatuta delako herrian kotxea utzi eta bi-hiru kilometro egiteko autobus bat hartu ahal izatea... eta ez dugu kontsideratu edo beharrezko ikusi linea hau jartzea beste ibilgailu bat gehiago beharko litzatekeelako, gainera, eta ekonomikoki ere garestia izango litzatekeelako kostua.

Baina edozein modutan, esan bezala, PSOEK egindako dezente ekarpen jaso ditugu ibilbideetan.

Bukatzeko, esleipenen irizpideetan, hemen ere EAJ-PNVk azken batzordean ekarpen batzuk, aldaketa batzuk eskatu zituen, onartu ziren eta zentzu horretan eskaintza ekonomikoa 51 puntu izango dira, ibilgailuaren kutsakortasuna 17 puntu, instalazioen kokapena 13 puntu, bidaiari kopurua 11 puntu eta sagardotegiko linea zabaltzea 8 puntu.

Gutxi gora behera, laburtuz, horixe da pleguetan jasotzen dena.

Alkatea: Bozkatzera pasa aurretik, Ricardo, hitza eskatu duzu. Andoni, Jaione, ez dakit zuek... Jaionek ez, Ricardo eta gero Andoni.

Ricardo Crespo: Kaixo, arratsalde on guztioi.

Lehenik eta behin, esan beharra daukagu ez dela erraza halako esleipen bat ateratzea eta oraindik zailagoa da Udal barruan teknikaririk izan gabe. Beraz, egindako esfortzua nabarmentzekoa da. Gainera, esan beharra daukat, baita ere, lehen momentutik Kororekin, gai honetan arduradun politikoa denez, interlokuzio ona egon dela gai honekin eta egia da proposamen batzuk onartu direla eta beste batzuk ez.

Lehenengoan esaten nuen batzordean eta Korori ere esaten nion, pertsonalki ez hartzeko, baina gure bozka kontrakoa izango dela. Azalduko dut zergatik emango diogun kontrako bozka.

Azken finean, gure planteamendua ezberdina zen. Guk eskatzen genuen bi ibilgailu izatea, bi ibilgailu horiekin, gure ustez, leku askoz ere gehiagotara iritsi gaitzkeela eta, gainera, denbora aldetik ere onurarako izango zela.

Orduan, planteamendua horretatik, gure proposamena ezberdina zen. Nahiz eta gero proposamen batzuk egin eta onartu.

Korok aipatu du, adibidez, Ereñozuko auzoaren ibilgailua. Ereñozuko auzoaren Hiribusa, Hiribusa da; eta Udalaren eskumena, kompetentzia da, eta Udalak eman behar duen zerbitzu bat. Gainera, komentatu du Ereñozuko Auzo Udala Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adostasun batera iritsi dela, baina Ereñozuko Auzo Udalak ez du adostasun horretara iristeko ahalmenik. Udalaren zerbitzua eta kompetentzia baita. Beste gauza bat da Ereñozun behar bat izatea, garraio arazo bat izatea eta, azken finean, konponbide bat eman beharra. Gainera, historikoki Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako linea horrekin. Baina, horrek ez du kentzen, Udalaren kompetentzia bat den heinean, Udalak eman behar duen zerbitzu bat dela.

Poligonoen kontua ere aipatu du. Poligonoen gaia edo proposamena zen Ereñozuraino zoazenez, joan-etorriko bidaia hori aprobetxatuz, geraleku batzuk jartzea poligonoetan; eta posible bazen langile batzuk autobusa erabiltzea, askoz hobeto.

Beste proposamen batzuk egin ditugu. Geraleku batzuk kentzea proposatu dugu, ezezkoa eman digute; baina argudiatuta. Esan dutelako egin behar baldin bada geraleku hori egingo dela, eta ez baldin badago jenderik ez dela egingo. Baina beno, egia da geraleku batzuk beste geraleku batzuetatik oso hurbil daudela; adibidez, Antziola kalean edo Etxeberrin, Etxe Handi-ren geraleku hori. Baina tira, bertan geldituko dira, egingo dira edo ez dira egingo, jendea egon ala ez.

Beste ibilbide aldaketa batzuk ere proposatu ditugu. Ibilbide orokorrean, adibidez, Iturmendiraino ez igotzea. Horrek azken finean bidaia ere luzatuko lukeelako. Hori, adibidez, onartu da. Eta beste geraleku batzuk aldatzea ere bai.

Horrez gain, eta uste dut oso garrantzitsua dela hau eta nabarmendu nahi nuke, eskola ibilbide zerbitzuak herrian zehar, esan dezakegu, hiruzpalau buelta ematen zituela. Buelta bakoitzean auzo ezberdinetara eta geraleku ezberdinak egiten zituen, nahiz eta asko errepikatu. Kasu honetan esan beharra daukagu, hirugarren buelta bigarren bueltaren berdintsua zenez, hirugarren buelta hori kentzeko proposamena egin genuen eta hori kentzeak balio izan digu orduak pixka bat finkatzeko, lehen laugarrena zen eta orain hirugarrena izango den buelta hori pixka bat lehenago egingo dugu eta batiz bat, Zikuñagan geraleku berri bat jartzeko baliatuko dugu. Zikuñagako biribilgunean jarriko da geraleku berri hau eta uste dut 8:45-8:50ak aldera pasako dela hortik. Eta hori eskolara joaten diren umeentzako oso garrantzitsua izango da Zikuñagako geraleku berri hori, gero Portun jaitsi eta Urumeara, adibidez, edo beste eskoletara joateko.

Kontrako bozka emango dugu, beraz, beste planteamendu bat geneukalako. Baina bidali ditugun proposamen batzuk onartu dira.

Alkatea: Ados. Eskerrik asko, Ricardo.

Andoni Amonarraiz: Guk aldeko botoa emango dugu, esleipena baloratuko duten puntuen balorazioan akordio batera iritsi ondoren. Akordio batera iritsi ginen, eta guk garrantzi handia edo handiagoa ematen genion hain kutsagarria ez den ibilgailuaren gaiari, eta akordio batera iritsi garenez, guk aldeko botoa emango dugu.

Alkatea: Ados. Eskerrik asko, Andoni.

Koro, ez dakit zerbait esan nahiko zenukeen edo bozketara pasako garen zuzenean.

Koro Etxeberria: Uste dut oso garbi dagoela gaia eta ez daukat beste ezer esateko.

Alkatea: Ados. Galdera alderantziz joango naiz egiten, Idazkariak errazago izateko apuntatzeko. Hernaniko Hiri Garraio zerbitzuaren kontrataziorako proposatzen diren pleguen kontrako bozkek? Alderdi sozialista. Abstentzioak? Ez dago. Eta aldeko botoak? Bale, gainontzeko hiru alderdiak. Beraz, onartuta gelditzen dira pleguak, zerbitzu berria martxan jarri ahal izateko, fase guztiak pasa eta hemendik hilabete batzuetara.

“Hernaniko udalerrian bidaiarien hiri-garraio zerbitzua kontratatzeke espediente berriaren izapidetzeari ekin zaio.

Ikusi dira espedientea osatzen duten dokumentuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 116. artikuluan jasotzen direnak. Lege beraren 117. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda,

Horiek horrela, gehiengo osoz, zera erabakitzen da:

Lehena.- Onartzea Hernaniko udalerrian bidaiarien hiri-garraio zerbitzua kontratatzeko ohiko prozedura ireki eta harmonizatu bidez egikarrituko den kontratuaren espedientea eta kontratu hau arautuko duen Plegu Tekniko-Administratibo Partikularra, eta erantsitako Baldintza Teknikoen Agiriak.

Bigarrena.- Onartzea gehienezko lizitazio prezioa izango dena, hau da, urteko 149.210,00 € + BEZ (14.921,00€). Guztira: **164.131,00€ /urtean**

Gastua aurrekontuko honako partidaren kontura onartzea: 1 05.227.08.441.10 2021

Hirugarrena: Kontratu honen iragarkia Europako Aldizkari Ofizialean eta Udal Kontratatzaile Profileen argitaratzea eta 30 egun naturaleko epea ematea proposamenak aurkezteko. “

8.- HERNANIKO UDALA EKILUR KOOPERATIBAREN BAZKIDEA IZATEA. Alkatea: Honekin zortzigarren puntura pasako gara. Hernaniko Udalak Ekilur kooperatiban bazkide izatearen ingurukoa.

Gainontzeko alderdi politikoekin aurreko astean bilera batean aipatu zen Ekilur kooperatiba irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat da eta Hernaniko Udala kooperatiba honekin elkarlanean ari da, nahi dugulako fidelizazio sistema bat sortu nolabait Hernaniko merkataritza eta ekonomia suspertzeko. Modu berritzaile bat dela ikusten dugu eta, esan bezala, merkataritza eta ekonomia indartu eta bultzatu nahi dituena.

Proiektua oraindik ere zirriborroa eta asmoak aurkeztu zitzaizkizuen, nondik nora joango diren, baina erabat burutu gabe dago eta burutzeko lehenengo pausoa izango litzateke irabazi asmorik gabeko kooperatiba honetan parte hartzea.

Honek zer ahalbidetzen digu? Parte-hartze honetan kooperatiban Hernaniko Udalak ere sare bat sortu ahal izatea, kooperatiba horren partaide Hernaniko Udalez aparte eragile eta herritarrak izango liratekeelako, eta denak ere kogoherentzia batean lanean aritu ahal izatea.

Bazkide izate honek suposatuko luke Hernaniko Udalak 1.000€-ko aportazioa egin beharko lukeela bazkide laguntzaile izateko. Hor daukazue Idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostenak aldekoak direla esaten dutenak. Esaten da legezkoa dela Udalak irabazi asmorik gabeko elkarte pribatu batean parte hartzea eta justu legeak berak aipatzen du helburua baldin bada sustapena eta laguntza neurri gisa. Eta justu hori da gure kasuan ere bitarteko bezala nahiko genukeela kooperatiba honetan parte hartu. Esan bezala, tokiko merkataritza eta ekonomia bultzatzeko.

Gure proposamena da Hernaniko Udala bazkide laguntzaile izatea. Beste irabazi asmorik gabeko kooperatiba batzuetan garen bezala. Eta hori da dakarkigun proposamena.

Honen inguruan ez dakit komentatzeko ezer ba al dagoen.

Ricardo Crespo: Sistema honen onura ikusi gabe jarraitzen dugu. Euroaren ohiko sistemak eskaintzen ez digunik ikusi gabe jarraitzen dugu. Eta hainbat bilera izan ditugu, aztertu dugu, eta, egia esan, ikusi gabe jarraitzen dugu. Gure ustez, eta azaldu zaigunez, kostu dezente dituen sistema batez ari gara; bai erabiltzailearentzat, bai merkatariaientzat, bai Udalarentzat, kudeatzailea izango baita.

Herritar bakoitzarentzat urtean 12 euro gehi BEZa aipatzen ari gara mantentze-lanengatik, eta Udalak lehenengo sei hilabeteetan emango du kostu hori. Sartu nahi duen kooperatiba aktibista bakoitzak 50 euroko fidantza jarri behar du, eta kooperatibatik aterako balitz, itzuli egingo litzateke. Saltoki bakoitzak urtean 24 euro gehi BEZa ordaindu beharko ditu sarearen barruan egoteagatik, alegia, urtean 29 euro dira. Gainera, kudeatzaileak, Udalak, hilean 1 euroko gastua izango du sarearen barruan dagoen saltoki edo enpresa bakoitzeko.

Horri guztiari gehitu behar zaio kontuen batez besteko saldoa, kontuen batez besteko saldoaren %0,5 udalerriko erakunde bati emango zaiola. Onuragarria da, baina baliteke norbaitek nahi ez izatea. Gainera, birkarga bakoitzean, irakurri behar dut, birkargaren %0,01 kobratuko dela 50 eurotik beherakoa bada. Eki horiek ezin dira eurotara aldatu, sistema honetan erabili ahal izateko aldatu duzun dirua ez bada. Hau da, zuk sustapenekin onura atera dezakezun Eki-etatik, adibidez, ezin izango dituzu eurotan berreskuratu.

Txanpon hori eurotara aldatzeak, uste dut, %2ko gehieneko kostua izan dezake, eta gutxienez %0,5ekoa; saltoki bakoitzak betetzen dituen baldintzen arabera da, adibidez.

Uste dugu ez duela inolako etekinik euroen aldean. Izan ere, saltoki bakoitzak Hernani barruko merkataritza-sare horretan parte hartu ahal izango du, Eki bidez parte hartu gabe, moneta arruntarekin eta gastu gehigarririk gabe. Bonuak eta promozioak ere euroekin izan daitezke, eta ez ditu lehen aipatu ditudan gastuak izango parte hartu eta horietaz baliatu ahal izateko.

Uneren batean dokumentazioan mikrokredituak eman daitezkeela aipatzen da, baina bileran galdetzen dugunean erantzun zaigu mikrokredituak sistema erabiliz bakarrik eman daitezkeela. Ez sistemak sor ditzakeen soberakinekin. Hau da, Udalak kreditu bat eman nahi badu, sisteman sartu behar du kredituan eman nahi duen kopurua eta sistema hori erabil dezake. Euroekin bezala, oso antzekoa. Berdin.

Gero, gainera, hainbat zalantza sortzen zaizkigu. Hori kudeatuko duen enpresa madrildarra da, pertsona bakarreko sozietate anonimoa. Eta zalantzak sortzen dizkigu gerta daitekeenari buruz, gerta dadin nahi ez dugunari buruz, adibidez, desfalko bat edo antzeko zerbait gertatuko balitz. Egia da 350.000 euroko bermea duela, baina ez dut uste nahikoa denik.

Gainera, beste hiru zalantza. Alde batetik, bi hilabeteko proba bati buruz hitz egiten ari dira. Uste dugu ez dela nahikoa bi hilabeteko proba bat proba pilotuaren emaitzak ezagutzeko. Ez da nahikoa merkatariaaren ikuspuntutik. Nahikoa izan daiteke Udalaren edo erabiltzailearen ikuspuntutik. Baina merkatariek hiru hilean behingo BEZa aurkezten dute, eta ezin izango dute sistema horrek beraientzat dituen kostuak ikusi beren aitortpenak egin arte. Beraz, bi hilabete ez litzateke nahikoa izango.

Gainera, beste bi zalantza ditugu. Zalantza garrantzitsuak iruditzen zaizkigu. Eki-etan ordaindu edo erosi behar badugu, nork bermatzen digu Eki-etan ordainduko ditugun produktu horien prezioak ez direla igoko? Izan ere, merkatariaiek kostu handiagoak dituzenez, pentsa dezakegu kostu horiek eragina izango dutela eroslearengan, bezeroarengan.

Eta azkenik, zalantza horrek ez du zerikusirik sistemarekin, Hernanin bizi dugun errealitate batekin baizik. Batez ere kaxkoan. Kaxkoan gutxi dira lineak, telekomunikazio-azpiegiturak, Internet. Eta pentsatzen dugu lehenago inbertitu behar dela linea bat eskaini ahal izateko, sistema hau erabili ahal izateko. Denok ikusi ditugulako, dendako atean txartelarekin ordaintzeko datafonoarekin atera behar izan duten merkatariaiek. Barrutik ez dutelako linea nahikorik.

Orduan, argitu ez diren zalantza hauek guztiak ditugu. Agian, sistema horren kostuak erabiltzailearengan eraginik izango ez balu, interesgarria izan liteke. Baina zalantza horiek ditugu oraindik, eta horregatik bozkatuko dugu aurka.

Jaione Aristregi: Kaixo, arratsalde on guztioi.

Gure taldeak Udalak Ekilur sareari atxikitzea babesten du. gure herriko merkataritza bizi dadin eta, ahal bada, bestetik hazteko ekimen guztiak egitea oso positiboa iruditzen zaigu. Merkataritzarik gabeko herria herri hila da, dakigunez.

Era berean, berriro diogu, esan dugu beste batzuetan ere, udalerrian saltoki handietarako eta supermerkatuetarako baimenak emateak tokiko merkataritzari dakarkion arriskua azpimarratu nahi dugu.

Baina Ekilur sistema ezartzeko Hernanin diktamenean azaltzen zen, behintzat, Hernanin proba pilotu bat egitea proposatzen dela. Eta, hain zuzen, gizarte zerbitzuek baliabide gutxi dituzten familiei ematen dizkieten diru-laguntzekin. Honen inguruan gure taldea honekin erabat desados dago. Ez zaigu iruditzen pertsona talde hori denik esperimendu bat egiteko egokiena. Bestetik, batzordean ideia zoro gisa proposatu nuen, baina pentsatuz eta, batez ere, beste herri batzuetako esperientziak ikusita askoz interesgarriagoa iruditzen zaigu Udala eredu izatea, esan nuen bezala; eta gonbidatzen ditugu kobratzen duten kargu politikoei borondatez, noski, soldataren portzentaia bat Eki-etan jasotzea eska dezaten. Guztira, urteko 276.000€-z hitz egiten ari gara Alkate eta liberatutako zinegotzien soldatak.

Beste proposamen bat da egin genezakeela kirol-talde eta elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzen portzentaia batekin eta Udalak ere onartu dezake Eki-etan zergak eta tasak kobratzea.

Bestalde, eta amaitzeko, garrantzitsua litzateke sare ekonomikoa inplikatzeko; hau da, hornitzaileei ordaintzen zaien portzentaia bat tokiko moneta honekin ere egin litekeela.

Gure ustez, bide hauek irekitzea modu bat izango litzateke ezarri nahi den sistema berri horren eredu erakundeak izan daitezkeen. Eta horrela dirua zirkulazioan jartzen dugu.

Berriro diogu, egin nahi den proba ez zaigu gustatzen. Ez zaigu zuzena iruditzen beharregatik behartuta dauden pertsonetatik hastea. Baina tira, hemen bozkatzen dena Ekilur sarean parte hartzea denez, gero datorrena etorriko da. Baina, momentuz, ados gaude parte hartzearekin.

Andoni Amonarraiz: Guk, egin ziguten lehen aurkezpenean, kontra bozkatu genuen, funtsean, alderdi sozialistak orain azaldu dituen zalantzengatik. Gainera, Hernaniko txartelarekin, Berriak-ekoarekin, alderatzen dugu, eta ez dugu oso argi sistema berri honek abantaila gehiago izango dituenik bezeroak fidelizatzeko.

Baina, hala ere, oraingo honetan abstenitu egingo gara, argiago azaldu zaigulako eta uste dugulako proba pilotuaren kostua onargarria dela eta benetako irudi bat emango digula, hernaniarrek proiektua babesten duten ala ez ikusteko. Diru publikoarekin kontuz ibili behar dela uste dugu, zer egin nahi den, eta gastua sortzen dituen onurak baino txikiagoa dela kontrolatu.

Gu abstenitu egingo gara. Jakin nahiko genukeena da gaur egun zenbat erabiltzailek eta saltokik eman duten izena proba pilotu honetan.

Alkatea: Ados. Azkenekotik hasiko naiz, bai? Esan dugun bezala, prozesua diseinatu bidean dago. Zuekin kontrastatu zen, zalantza horiek argitu eta prozesuaren lehenengo pausua da parte izatea kooperatiban. Hemendik aurrera hasiko gara estimazio desberdinak ditugu, baina Andoni, zuk esan duzunaren inguruan, lehenengo proba piloturako eta ondoren, merkatariekin kaptazioa egiten.

Lehenengo pausua da kooperatibaren parte izatearena.

Bestetik, Ricardok aipatu dituen zalantzak oso teknikoak dira. Batzuk berriak dira, beste batzuk aurrekoan Ekilur kooperatibako teknikoek azaldu zituzten. Gauza bat da zalantza izatea eta beste bat ados ez egotea. Nik uste dut bigarren horretatik dagoela gehiago, ados ez egote horrekin.

Desberdintasuna zer da? Gastu bezala aipatzen dena guk ulertzen dugula inbertsio bat dela hori. Inbertsio horrek Udalak egingo duen inbertsio horrek aberastasun bat sortuko duela Hernanin, zeren oraingo euroarekin edo oraingo sistemarekin desberdintasuna zein den? Oraingo sistemetan eta Udalak ematen dituen promozioetan diru hori Hernanitik kanpora joaten dela. Eta sistema honekin egingo lukeena da sare bat osatu eta diru horren ihes hori nolabait ekidin edo hori da asmoa.

Bestetik, erabat ados Jaionek esan duenarekin. Proba pilotua modu batera izango da, baina aipatu dituzun gauza guztiak daude gure buruan, eta azterketak egiten ari gara. Juridikoki ere zer egin dezakegun eta gaur komentatuko dut, juridikoki posible baldin bada, nire soldataren %X bat Eki-etan jasoko dudala.

Bestetik, kontuz gauzak nola komentatzen ditugun ere. Ez dugu esperimenteratuko zerbitzu sozialetako erabiltzaileekin. Pilotu bat egingo da, parte hartzea proposatuko zaie, diru extra bat jarrita hori egiteko. Uste dut oso modu desberdina dela gauzak esplikatzeke eta arrazoiak zeintzuk ziren ere argi utzi genituela, beste helburu batzuk ere lortu nahi genituelako sistema honekin. Inongo ideiatan ez dago esperimenteratuak egitea. Hori baino, esango nuke oinarri gehiago daukala proiektu honek, bai tokiko ekonomiaren sustapen aldetik eta baita alde sozialetik ere. Eta hori bai Alkate bezala eta Zerbitzu Sozialetako arduradun politiko bezala esaten dut.

Baina gainontzeko egin dituzuen proposamen horiek ez dira guretzat berriak, guk ere buruan baitauekagu eta uste dut aurreko batean ere komentatzen aritu ginela; hornitzaileena eta beste sistema batzuen hitz egiten. Argi daukagu Udalak izan beharko lukeela honetan bultzatzaile.

Orduan, zuzenean bozketara pasako gara. Eta esan bezala, Jaionek ondo esan duen bezala, hemen bozkatzen duguna da irabazi asmorik gabeko kooperatiba honen partaide izatea eta gero joango gara berriz ere elkarlanean proba pilotuaren diseinua eta ondorengo inplementazio faseak lantzen. Hernaniko Udala Ekilur kooperatibaren bazkide izatearen aldeko botoak? EH Bilduk eta Orain Hernani Elkarrekin-Podemosek. Kontrako bozkek? Bi alderdi sozialistarenak. Eta abstentzioak? Lau EAJrenak. Beraz, onartuta gelditzen da Ekilur kooperatibaren bazkide izatea.

9.- ERREGU ETA GALDERAK. - Alkatea: Honekin azkeneko puntura iritsi gara. Erregu eta galderena. Ez dakit badagoen zerbait.

Jesus Mari Lopez : Arratsalde on denoi.

Duela egun batzuk, Karabel auzoko aparkalekuaren arazoa konpontzeko lantalde bat sortzeko eskaera erregistratu genuen. Jakin nahi genuke nola dagoen gaia, ea erantzunik dagoen, ea aztertu duzuen...

Alkatea: Horretan ari gara. Zuk esan bezala duela egun gutxi jaso dugu proposamena. Horretan ari gara eta erantzungo dizuegu. Printzipioz inolako arazorik gabe, baina ahal den azkarren erantzungo dizuegu eta hitz egingo dugu elkarrekin.

Jesus Mari Lopez Bale, milesker.

Andoni Amonarraiz: Bi kontu ditugu. Bat, Florida eta Zubipe-Landare artean proiektatuta dagoen bideari buruzko informazioa bidaltzeko aukera bazenute, eskertuko genuke jasotzea. Proiektua, sortzen ari diren arazoak, obraren hasierako aurrekontua, noski, egin beharreko eraginak eta abar, hau da, bide horri buruzko informazioa.

Eta bigarrena, ea erantzun ditzakezuen 2020ko urriaren 15ean eta 2020ko abenduaren 17an aurrekontuei buruzko arauaren epaiari buruz egindako interpretazioarekin lotuta egin genituen eskaerak. Uste dut duela bi aste hitz egin gurela gaiaz. Ea lehenbailehen erantzuten diguzuen.

Alkatea: Bai, azkenetik hasiko naiz. Aurrekoan zure bulegoan honen inguruan hitz egiten aritu ginen, teknikariaren txostena jaso duzu eta galdetu zenidan ea horretaz aparte nire erantzunik joango al zen. Aipatu nizun erantzuna teknikariaren txostenaren baitan joango dela, baina gaur bertan justu irakurtzen aritu naiz txostena eta falta da sinatu eta bidaltzea. Baina hori badaukazu.

Andoni Amonarraiz: Beno, sinaduraren faltan zaude, ezta?

Alkatea: Hori da. Firmatu eta irteera erregistroa ematea. Baina erantzuna, idazkariaren txostena jaso duzu. Zure eskaeraren erantzun moduan, eskatu zenidan ea nire erantzunik jasoko al zen, baina aurreko astean bulegoan komentatu genuen eta falta da sinatu eta bidaltzea. Baina eskaera horren inguruko txostena badaukazu. Bidali zitzaizun.

Andoni Amonarraiz: Bai, baina noski, guk erantzuna behar dugu, ez teknikariaren txostena soilik, baizik eta eskatu genuen eta txostena egin zen erantzuna, gure eskariari erantzuteko.

Baina sinadurarik ez baduzu, listo.

Mattin Aldaia: Ea ulertu dudan. Biala nondik nora? Floridatik Landarera? Hori da galdera?

Andoni Amonarraiz: Beno, Floridako komunikazio- edo irteera-bidea dagoen espazioa, teorikoki Floridako biribilgunetik doana eta itxuraz irteten zena, EH Bilduren proposamena Landare-Zubipeko errepidera ateratzen da, ezta? Ez dakit kale horrek izenik duen, baina gero ezkererantz irteten zen, Zubiondorantz, etab.

Mattin Aldaia: Bai, etxebizitzak doaz, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako etxebizitzak Floridan, esan dezagun. Eta etxebizitza horiek egiterakoan, orduan trenbide azpitik doa bial bat. Hortaz, etxebizitza horien urbanizazio guztia egiten ari dira, proiektua egiten ari dira eta horren arabera joango da kokatuta bial hori.

Orduan, hastapenetan dago, dena zentratu behar da urbanizazio proiektu horretan eta horretan ari dira. Dena batera doa.

Alkatea: Eskaera zen, Andoni, ulertzen dut, proiektu horren informaziorik-edo ematerik ba ote dagoen.

Andoni Amonarraiz: Beno, nik dakidanez, esan digutenaren arabera, proiektua soilik bidearena egiten ari da, inguruko urbanizazioak alde batera utzita; eta jakin nahi genuen ea bidearen proiektua amaituta zegoen eta ea daturen bat eman zeniezauketeen.

Guk hitz egin dugu, inguruko urbanizazioen gaiaren inguruan, eta hori bidea baino askoz luzeagoa da.

Mattin Aldaia: Ez, dena lotuta doa. Biala eta urbanizazioa. Urbanizazioan egin behar dena eta hor pareta batzuk doaz, segun nola egiten den urbanizazioa, baita ere trenbide azpiko bial hori doa. Dena batera doa. Ezin da bata besterik gabe egin. Dena batera joango da. Baina informazioa izango duzue behin erabakitakoan. Oraindik erabaki gabe dago nola egin, atzerago, aurrerago; eta horretan dabilta. Hala ere, informazioa daukagunean pasako dizuegu.

Alkatea: Besterik ez baldin badago, beraz, hemen utziko dugu gaurko plenoa.

Eskerrik asko denoi.